

XABI LARREA

Japonian dugun malabarista

Trebezia bazuela ikusi zuenean gogoz ekin zion malabareak egiteari. Orduetik hona urteak pasa dira eta Deustuko Gazte Lokalean malabarek ikastaroa ematen zuen gaztea egun Japonian dago parke tematiko batean lanean. Bere bizipenez hitz egin digu munduko bestaldetik.



ZENBAT DENBORA DARAMAZU HAN ETA NOLAKOA IZAN ZEN HASIERA?

Zortzi hilabete bete ditut Japonian. Heldu nintzanean ikusi nuen lehenengo gauzak harrিতuta utzi ninduen. Aireportuan izan zen. Heldu berri nintzen eta hango Senshei bat (arte martzialak erakusten duen irakaslea) hiru poliziaekin zegoen aireportu erdian oihuka eta arte martzialak egiten. Neure lehenengo oroimena da eta zeharo harrিতu ninduen. Orduetik hona kultur txoke izugarriak sentitu ditut. Monjeak beraien janzkerek eta ordenadore portatil bat beso azpian daramatela, eraikinak, gastronomía, hainbeste pertsona etxebizitza berean bizi izatea....egia esanda hasieran ia gauza guztiek harritzen zaituzte. Denbora pasa ahala pozten zara guzti hau ikusteko aukera izateagatik.

NOLA MOLDATU ZARA HIZKUNTZAREKIN?

Beka batekin etorri nintzen eta sasi ofiziala den lanpostu bat betetzera, beraz, hasieran itzultzaileak izan genituen gure zerbitzura. Hori lagungarria izan zen oso.

Gehien moskeatzen zaituena da idazkera guztiz ezezaguna izatea. Kaletik zoazenean ez dakizu okindegi ala liburutegi baten ondotik pasatzen ari zaren.

Dagoeneko zerbait ikasi dut. Maila baxu batean japonieraz elkarrizketa bat egiteko zelan edo halan moldatzen naiz eta horrek, egia esanda, asko pozten nau. Japonian lau idazkera mota erabiltzen dituzte eta ni bat ikasten hasia

naiz. Nik aukeratutakoa Hiragana du izena.

ZELAKOA DA EGIN BEHAR DUZUN LANA?

Parke tematiko batean egiten dut lan, Espainiak duen erakusketa baten barruan showa prestatzen dut. Malabareak, dantza eta kale antzerkia gehien bat. Familiei zuzendutako ikuskizuna aurkeztea da nire lana, nire atzetik fanfarriak, dantzari klasikoak, eta abar... aktuatzen dute. Baina ez da hori dena. Beste alde batetik Espainiarekin zerikusirik ez duen beste ikuskizun bat egiten dut. Japonieraz bazilatzen dut jendearekin eta kolorez eta biziz betetako showa da. Akrobaziak eta malabareak egiten ditut gehien bat eta publikoak paper garrantzitsua betetzen du. Polita da.

BADAKIGU BIDAIK EGITEKO ERE APROBETXATZEN ARI ZARELA...

Bai, honaino helduez gero normala da hemendik hurbil dauden lekuak ikusi nahi izatea. Laos, Vietnam eta Thailandiatik ibili naiz eta bueltatu aurretik zerbait gehiago ikustea ere gustatuko litzaidake.

ZER DA GEHIEN BOTATZEN DUZUNA FALTAN?

Normalena, zer esango dizut ba, lagunak eta familia. Gurasoak duela gutxi izan ditut bisitan, beraz koadrila eta gainontzeko lagunak. Dena den, oso gustura sentitzen naiz Japonian. Hemen ere jende oso jatorra ezagutu dut, baita neska bereziren bat ere. Ez daukat kexatzeko inolako arrazoirik. ■